



ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

2013ko maiatzaren 7ko 18:10ean, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

- * Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik
 - Asier Sarriegi, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
 - Aitor Arozena, Kiroleko zerbitziburua.
 - Imanol Fernández de Larrinoa, kirol teknikaria.
 - Ramón Martiarena, Gipuzkoako Kirol Kontseiluaren idazkaria.

- * Gipuzkoako udalen aldetik
 - Arkaitz Angiozar, Lezoko Udalekoa.
 - Edorta Badiola, Zarauzko Udalekoa.
 - Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.
 - Ramon Mujika, Elgoibarko Udalekoa.

- * Kirol federazioen aldetik
 - Tetxus Barandiaran, Mendi Federaziokoa.
 - Rubén Sánchez, Saskibaloï Federaziokoa.
 - Teresa Ortega, Gipuzkoako Judo Federaziokoa.
 - Alicia Figueroa, Kirol Egokituaren Federaziokoa.

- * Ikastetxeen aldetik
 - Aitor Pérez, Errenteriako Orereta Ikastolakoa.
 - Susana Santor, Arrasateko Herri Eskolakoa.
 - Fernando Urien, Zarauzko Lizardi Institutukoa.
 - Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.

Banatutako dokumentazioa

- . 2012ko ekainaren 12ko bileraren akta
- . 2013-2014ko eskola kiroleko jarduera programaren zirriborroa
- . 2012-2013ko ikasturteko jardueri buruzko partaidetza datuak, futbol, saskibaloï eta eskubaloï modalitateetan
- . Futbol klubuen arteko jokalariai aldatetei buruzko araubide espezifikorako proposamena



1) 2012ko ekainaren 12ko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea

Akta onartu da, inolako aipamenik gabe.

2) 2012-2013ko jarduera programaren garapeneko gorabeherak

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu egin ditu hiru kirol kolektibo modalitate garrantzitsuenetan, futbol, saskibaloia eta eskubaloia, 2012-2013 ikasturteko jardueretan izan den partaidetzari buruzko datuak. Esan du ez daukatela eskura matrikulatutako eskolaume guztiekiko partaidetza portzentajea, eta datu adierazgarriak azaldu ditu, aurreko ikasturtearekiko gorakada orokor bat utziz agerian.

Beste hainbat gorabehera ere aipatu ditu, honakoak:

- Gipuzkoako txapelketak, hiru kirol kolektibo modalitate horietan, kontzentrazio bidez egingo dira. Eskubaloian, seina taldeko bi multzo; eta futbol eta saskibaloian hiru jardunalditan: final-laurdenak, finalerdiak eta finala.
- Lizentziak berandu bidali dira, urtarril amaieran.
- Haur mailako futboleko, Federazioak lizentzia guztiak eman ditu, lehiaketako edo errendimenduko ibilbidekoak diren bereizteke.
- Padelean lehen aldiz egin da kimu eta haur mailako Gipuzkoako Txapelketa, Etxadiko kiroldegian.
- Data arazoak izan dira errendimenduan hasteko futbol lehiaketako egutegiak prestatzeko unean, krosetako jardunaldiekin bat egiten baitzuten.
- Futbol eta saskibaloiko kimu mailako Espainiako txapelketei dagokienez, euskal federazioek entrenamenduak antolatu zituzten eta, kasu batzuetan, Gipuzkoako eskola kiroleko programako jarduerekin bat egiten zuten horiek, eta beste batzuetan eragotzi egiten zuten eskolaumeak eskolara joatea, arratsaldeko 5etan programatzen zituzten eta entrenamenduak, Laudion esaterako.
- Futboleko klub batzuek salaketak jarri dituzte, eskola kirolaren arloan beste klub batzuek egindako arau-urraketengatik. Gauzak horrela, ikuskapen batzuk egin behar izan dira.
- Hiru zigor espediente abiatu dira: bat Antiguokok Kantabrian haur mailako txapelketa batean parte hartzeagatik; beste bat klub horrexek txapelketa bat antolatzeagatik Berioko zelaian, 2012ko abenduaren 6an, klub antolatzaileaz gain Irungo Dunboa-Eguzki klubaren partaidetzaz; eta hirugarrena Gol ta Gol izeneko elkarte batek 2012ko Aste Santuan, udan eta Eguberrietan hiru campus antolatzeagatik.

Aitor Arozenak aipatu egin ditu zigor espediente horien alderdietako batzuk, futbolaren munduan eta Foru Aldundiaren eta Real Sociedad taldearen arteko harremanean izan dezaketen oihartzunarekin batera. Ohar egin du espediente horiek kirol munduari eragiten diotela oro har, zeren eta, azken batean, ezar daitezkeen zigorrak denok hartu eta onartutako kirol arauak urratzeagatik ezarriak izango baitira. Zigorrak ezartzetik sortzen den erantzunak kirolak oro har emandako erantzuna izan behar du.



Arkaitz Angiozarrek, honi dagokionez, adierazi du aspalditik espero zutela zigor espediente hauen antzeko zerbait.

Asier Sarriegik esan du zigorrak jarriko diren lehen aldia dela.

Ramón Mujikak adierazi du espedienteen sorburua futboleko klub batzuek beste batzuen kontra egindako salaketak direla. Kirol munduak sarritan salatu ditu futboleko klubak jarduerak.

Paco Urrestarazuk eskatu du haurrak ez izatea ezartzen diren zigorren ondorioak jasaten dituztenak, ez daitezela azkenean haurrak izan kaltetuak.

Imanol Fernández de Larrinoak esan du zorrotz ari direla jokatzeko eskola kirolaren arloan baimenak emateko unean. Eta honek guztiak bere isla izan dezake, halaber, errendimenduan hasteko lehiaketetan parte hartzeko gonbidapenetan.

- Susana Santorrek galdetu du zer sententziak duten besteek, eskola kirolari buruzko araudia betetzearen inguruan.

Fernando Urienek erantzun du araudia aspalditik ari dela urratzen, eta ez bakarrik futbol modalitatean, saskibaloian ere urratzen ari baitira.

- Paco Urrestarazuk aipatu du areto futboleko, kadete mailan, kobratu egiten dela fitxengatik; eta saskibaloian arbitratzea kobratzen dute. Benjamin eta kimu mailakoek bi entrenamendu egiten dituzte Beasaingo futbol eskolan.

Arkaitz Angiozarrek uste du eskoletan daudenak eskola kirolean ere egotea lortu dela. Klubak, gurasoak eta eskola kirolean inplikaturik beste agente batzuk eskola kirola garatzen den moduan eta horretan diren arauen kontra daudelako inpresioa dagoela aipatu du. Baina inpresio orokor horri aurre egin behar zaio, nahiz bai krisi ekonomikoagatik bai beste zertzelada batzuegatik oraingoa une ona izan ez gatazkak irekitzeko.

Susana Santorrek aipatu egin du Debagoienean duten giroa. Klubek beti gehiago nahi dute, eta ez dituzte ulertu nahi eskola kirolaren mezuak eta balioak. Dena azaldu beharko litzaieke, puntuak puntu. Gurasoek ere ez dute laguntzen, eta eskolek kuota kobratzen dute denagatik.

Mota bereko aipamenak egiten segitu dute, gure lurraldeko eskola kirolaren egungo egoerari dagokionez.

Aitor Arozenak esan du ezen, orain arte, bera bakar-bakarrik eskola kiroleko jardueren erabiltzaile izan dela, eta jende gehienak ez duela ezagutzen eskola kirolaren atzean dagoen filosofia.

Paco Urrestarazuk uste du eskola kirolak lagundu egingo liekeela klubei, dena behar bezala egingo balitz. Klubak berak konbentzitu beharko genituzke horretaz, eta arauak betearazi behar zaizkie.



Asier Sarriegiren ustez, azkenean diru arazo bat da.

Edorta Badiolak uste du ez dela hori bakarrik, kaptazio arazo bat ere bada.

Fernando Urienek uste du bizkorrago jardun behar dela, ez-betetzei aurre hartu behar zaiela. Urraketa ohitura bihurtzen bada, oso zaila da ongi bideratzen.

Aitor Arozenak dio sistema guztiek dituztela akatsak, eta uste du daukagun eskola kiroleko sistema ondo dagoela, eta gustura dagoen jende asko dago atzean. Gauza asko hobetu beharko lirateke baina, oro har, ondo dago.

Alicia Figuroak uste du gure eskola kirola dela kirolaren balioak ondoen ordezkatzeko dituenak. Lan gehiago egin behar da, eta hobeto, eta arauak betearazi egin behar dira. Gurasoekin hitz egin behar da. Gogoetarako gauza asko daude. Gogoeta horiek ez daitezela bakarrik Kontseilu honetan gera.

Paco Urrestarazuk uste du klubekiko harremanak hobetzea izango litzatekeela irtenbidea, eta denboraldi bakoitzaren hasieran haiekin elkartu eta gauzak argi jartzea.

Tetxus Barandiaranek proposatu du bi ardatz lantzea: araudia betearaztea, hortxe baitago, inplizituki, eskola kirolaren filosofia, eta gurasoei erakustea.

Eskola kirolaren egungo egoerari eta hori sendotzeko ekintzak egiteari buruzko hainbat aipamen eta iradokizun izan dira.

Azkenean, Aitor Arozenak mugikortasun planaren garapenari buruzko alderdi batzuk aipatu ditu.

3) 2012-2013ko jardueraren programaren zirriborroa

Aldundiak aipatu du aldaketa gutxi izan direla, eta federazioek egindako ekarpen berriak eman ditu aditzera, honakoak baitira:

- Triatloia: hastapen ikastaro bat, Nik tri izenekoak, uztailean zehar egiteko.
- Boloak eta Toka: hasteko kanpaia baterako proposamena jaso zain gaude.
- Paddle surfa: hastapen kanpaina.
- Golf alai: tapiz gaineko minigolf moduko bat.

Epe bat irekiko da Kontseiluaren hurrengo bilerarako ekarpenak eta iradokizunak egiteko; bilera horretan programari behin betiko onespina emango zaio.

Bestetik, Imanol Fernández de Larrinoak errendimenduan hasteko lehiaketetako araudi orokorraren aldaketa posiblea aipatu du; horren helburua da proportzionaltasun bat ezartzea, detektatzen diren urraketen larritasunaren eta horietan inplikaturako klubak lehiaketa horietan parte hartzeko ez gonbidatzearen artean.



Era berean, aipatu du ezen, ikasturtean zehar, lan egin dela kimu, haur eta kadete mailetan klubetan arteko jokalariek erregulatzeko araudi bat prestatzeko.

Lan hori Gipuzkoako Futbol Federazioaren Prestakuntzako Futbolaren Batzordearen barnean egin da.

4) Eskola kiroleko monitore ikastaroa

Imanol Fernández de Larrinoak gai hau azaldu du, adieraziz aurten bi ikastaro txanda egin direla eta horietan okupazioa ez dela erabatekoa izan. Monitore ikastaro horietako partaidetza datuei buruzko taula bat aurkeztu du. Gogoratu du online ematen dituztela, eta gero praktika batzuez osatzen direla. Uste du luzeegia dela, baina jendeak balorazio altua ematen dio gogobetetasun galdetegietan.

Tetxus Barandiaranek proposatu du moduluka banatzea.

Imanol Fernández de Larrinoak erantzun dio dagoeneko pentsatu dutela ordu kopurua eta edukiak murriztea, prestakuntzaren aldetik eta lortu nahi denerako interes txikienekoak kenduta.

Fernando Urienek galdetu du federazioek titulu horiei indarra eman ote liezaieketen, balio erantsi bat izatearren.

Imanolek erantzun du ikastaroei ezin zaiela ofizialtasunik eman, horretarako eskumenik ez dugulako. Oinarrizko prestakuntza bat ematea pentsatu zuten, eta federazio modulu batez osatzea, baina oraingoz ez da horrela. Ikastetxeetara bideratzen diren diru laguntzak haztatzeko unean balio lezake.

Fernando Urienek uste du sustatu egin beharko litzatekeela.

Susana Santorrek aipatu du monitoreen erregularizazioa eskatzen ari direla Debagoienean.

5) Euskadiko errendimenduko txapelketa. Euskadiko Jokoak.

Imanol Fernández de Larrinoak esan du aurten Euskadiko Jokoak Durangon egingo direla, maiatz amaierako eta ekain hasierako asteburuetan.

Azaldu du, halaber, nola izango diren futbol, esku pilota eta saskibaloiko errendimenduan hasteko Euskadiko Txapelketak.

6) Arartekoak egindako txosten eskaerak



Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du ezen, izandako salaketa batzuen ondorioz, eskola kirolaren arloko hiru txosten eskatu dizkiola Arartekoak Gipuzkoako Foru Aldundiari:

- Salaketetako bat Irundik iritsi da, eta eskatzen zuen sofbola mutilentzako eskaintzan sartzea.
- Beste batean eskatzen zuten kimu mailako neska batek haur mailako talde batean parte hartu ahal izatea, kimu mailan ez dagoelako errendimenduan asteko emakumezko lehiaketarik.
- Hirugarrenak eskatzen zuen Donostiako neskek parte hartu ahal izatea Kontxako hondartza futbolaren txapelketan.

7) Eskola futbolari buruzko akordioen jarraipenerako batzordea

Imanol Fernández de Larrinoak azaldu egin du futboleko klubean artean jokalariai aldatzeari buruzko araudi espezifikorako proposamen dokumentu banatua, eskola futbolari buruzko akordioen jarraipenerako batzordean aurkeztu baita. Atxikitze eskubidea galarazita dagoenez gure kirol antolamenduan, Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 30eko 14/1998 Legearen 67.3 artikulura jo da, honen xedea adin txikiko kirolariak babestea baita, futboleko jokalariai klub batetik bestera igarotzea mugatuko duen erregulazio bat ezartzearen. Mugak honakoak lirateke: beste klub bateko urte bereko jokalaria bakar bat denboraldiko, edo bi jokalaria urte desberdinekoak baldin badira; eta klub batek ezingo ditu beste klubetatik bost jokalaria baino gehiago hartu denboraldiko. Gainera, akordioaren zirriborroak jasotzen du klubek berariazko akordioak izenpetu ahal izango dituztela elkarrekin, aipatutako mugak indarririk gabe uzteko. Hau da, dirudienez aipatutako guztia ez da ezertan gauzatuko.

Edonola ere, Imanolek esan du akordio horrek bere isla izan beharko lukeela 2013-2014ko ikasturteko eskola kiroleko jarduera programan.

8) Kirol eskoletako partaidetzari buruzko txostena

Imanol Fernández de Larrinoak esan du ahaztu egin zaiola txostena ekartzea, eta hurrengo bileran aztertuko dela.

9) Bestelakoak

- Imanol Fernández de Larrinoak adierazi du orain amaitzear den ikasturtearen hasieran hasi behar zuela Kontseilu hau urte biz behin berritzeko prozesuak.

Dagokion prozesua hurrengo ikasturtearen hasieran abiatzea proposatu du.



Proposamena onartu da.

- Paco Sagarzazuk aipatu du Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren enplegaturen bat soldata kobratzeke dagoela, eta horregatik bertan behera gelditu direla lehen sorospenetarako ikastaroak.

Aitor Arozenak erantzun du laster normalduko dela federazio horretako enplegatuen egoera.

Arkaitz Angiozarrek galdetu du eskola kiroleko kudeaketa egiturengatiko diru laguntzak noiz ordainduko zaizkien toki entitateei, ekainaren 15a baino lehen, hau da, oporren aurretik, edo ondoren.

Aitor Arozenak erantzun du gero izango dela.

- Alicia Figueroak esan du desgaitasunen bat duten 3.000 eskolaume daudela, eta asko dagoela egiteko.

Eta, aztertzeko beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 20:25ean amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria